

2. ariketa: aukeratu erantzuna

Ana Galarragak EPOaz hitz egingo digu jarraian.

- Entzuten hasi aurretik 2 min dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

9. Zer dakigu EPOaz?

- a) Kirolariek jakinarazi dutena besterik ez.
- b) Jende gehienak erabiltzen duela.
- c) Kirolariek probetxu gehiago ateratzeko erabili dutela.

10. Zer da EPOa?

- a) Globulu gorrien sorreran zerikusia duen hormona.
- b) Globulu gorriei deitzeko beste izen bat.
- c) Globulu gorrietatik sortzen den hormona bat.

11. Zer dio Ana Galarraga EPOaz?

- a) EPOak oxigenoa behar duela irauteko.
- b) Horri esker, globulu gorriek energia gutxiago kontsumitzen dutela.
- c) Globulu gorriak ugaritzeko erabiltzen dela.

12. Non sortzen da EPOa?

- a) Giltzurrunetan eta laborategian.
- b) Laborategietan baino ez.
- c) Giltzurrunetik kanpo beti.

13. Zergatik da zaila egitea?

- a) Proteina askok parte hartzen dutelako.
- b) Konplexua delako.
- c) Tolestu egiten delako.

14. Zer aurkikuntza egin dute orain?

- a) Kirolarien gorputzetik ateratako EPOa tratatzea lortu dute.
- b) EPOa laborategian egitea lortu dute.
- c) EPOa transfusioetarako erabiltzea lortu dute.

15. Zer dio Ana Galarragak merkaturatzen den EPOaz?

- a) Txinatarrek egiten dutela.
- b) Saguak genetikoki eraldatzea lortzen duela.
- c) Hamsterren bitartez lortzen dela.

16. Zer arazo izan dute orain arte?

- a) Talde desberdinak aritu direla ikerketan.
- b) Askotan saiatu arren, ez dutela EPOa zerotik hasita laborategian egitea lortu.
- c) Ez zutela osagairik hasieran egin ahal izateko.

17. Nolakoa da lortu duten EPOa?

- a) Tolestu gabea.
- b) Osagarri guztiekin osatua.
- c) Azukre-kate hutsez osatua.